

CONSULADO 500 ANIVERSARIO

# BILBAO

1511-2011

A comienzos del siglo XVI y ante la competencia de la ciudad de Burgos, los mercaderes y mareantes de la villa de Bilbao solicitaron a la Corona castellana la confirmación de su autoridad y jurisdicción sobre los asuntos comerciales. En respuesta y por privilegio de la Reina Dª Juana dado el 22 de junio de 1511, se crea el Consulado, Casa de Contratación, Juzgado de los Hombres de Negocios de Mar y Tierra y Universidad de Bilbao.

El consulado quedó sujeto al gobierno político y económico de la Villa si bien se regía por sus Ordenanzas desde 1531. Revisadas y modificadas con el paso de los años, la codificación de las Ordenanzas de 1737 les permitió ser elevadas a la consideración de fuente de Derecho Mercantil Marítimo.

Componían el Consulado dos tipos de gentes y actividades, los capitanes y maestres de naos, y los mercaderes y tratantes que eran los propietarios de las mercancías.

A través del puerto de Bilbao se canalizó la exportación de lana castellana y hierro vasco hacia Flandes, Inglaterra o Francia.

Bilbao fue así puerta para un comercio europeo que negociaba con las manufacturas textiles (paños, sedas, lienzos...), pero al que no fueron ajenos bienes de consumo, artículos de lujo e, incluso, obras de arte por lo que el comercio sirvió también para propiciar un trasvase de ideas, modas, gustos, estilos e, incluso, artistas y talleres.

El Consulado de Bilbao desaparece en 1830 al entrar en vigor el Código de Comercio de 1829.

En 1872 se crea la Junta de Obras del Puerto y comienza la gran transformación de la ría de Bilbao: la barra de Portugalete, el encauzamiento de la ría y los muelles de Uribitarte fueron hitos en esa remodelación. Un poco más tarde, el 28 de mayo de 1886 se constituye la Cámara de Comercio de Bilbao.

## BESTE ERAKUSKETAK / OTRAS EXPOSICIONES

KONTSULATUAREN URTEURRENA 500 ANIVERSARIO CONSULADO

**"BILBOko ITSASADARRA"**
**"La RÍA de BILBAO"**




Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa
Museo Marítimo Ría de Bilbao

AZAROAK NOVIEMBRE 2011 **11 / 8** URTARRILAK ENERO 2012

**"BILBOko KONTSULATUAren ARTXIBOA"**
**"ARCHIVO DEL CONSULADO DE BILBAO"**




Sala Ondare Aretoa

ABENDUAK DICIEMBRE 2011 **11 / 28** OTSAILAK FEBRERO 2012

ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN:

**EUSKAL MUSEOA - BILBAO - MUSEO VASCO**
Asteartetik Larunbatetara 11:00 - 17:00 Martes a Sábados
Igandea 11:00 - 14:00 Domingo

Miguel de Unamuno Plaza, 4 - 48006 - BILBAO
Telf. +34 94 415 54 23 - Fax +34 94 479 06 08
http://euskal-museoa.org - museoa@euskal-museoa.org

Babesleak / Colaboran:



KONTSULATUAREN URTEURRENA 500 ANIVERSARIO CONSULADO

# BILBAO

URRIAK OCTUBRE **11 / 31** ABENDUAK DICIEMBRE

KONTSULATUA · CONSULADO · BILBAO 1511 - 2011

## MERKATARIAK ETA MERKATU-GAIAK

## MERCADERES Y MERCADERÍAS



KONTSULATUAREN 500 URTEURRENA

# BILBAO

1511-2011

*XVI. mendearen hasieran, eta Burgosko hiriak sortutako lehiaren aurrean, Bilboko hiribilduko merkatari eta marinelek Gaztelako Koroari eskatu zioten merkataritza-gaiei buruz zuten aginpidea eta jurisdikzioa berresteko. 1511ko ekainaren 22an Joana erreginak emandako erantzun bidez, eta pribilegio gisa, Kontsulatua, Kontratazio Etxea, Itsasoko eta Lurreko Gizonen Epaitegia, eta Bilboko Unibertsitatea sortu zen.*

*Kontsulatua Hiribilduko gobernu politiko eta ekonomikoaren menpe geratu zen, nahiz eta 1531tik zegoen bertako Ordenantzen menpe. Urteekin, arau horiek berrikusi eta aldatu egin ziren, eta, horrela, 1737ko Ordenantzen kodifikazioari esker, Itsas Merkataritza Zuzenbideko iturri gisa hartu ahal izan ziren.*

*Kontsulatua bi jende eta jarduera motak osatzen zuten: alde batetik, itsasontzietako maisuek eta kapitainek, eta, bestetik, merkatariek eta tratulariek, hau da, merkantzien jabeek. Bilboko portuaren bitartez, Gaztelako artilea eta euskal burdina Flandes, Ingalaterra edo Frantziara esportatzen zen.*

*Modu horretan, Bilbok ate gisa jardun zuen, ehungintzako manufakturekin (zapiak, zetak, mihiseak...) negoziatzen zuen merkataritza europarrarentzat. Era berean, aipatutako manufakturez gain, kontsumo-ondasunen, luxuzko gauzen eta artelanen gaineko negozioa ere eratu zen. Beraz, merkataritzari esker, ideien, moden, gustuen eta estiloen mugimendua sortu zen, bai eta artistena eta tailerrena ere.*

*Bilboko Kontsulatua 1830ean desagertu zen, 1829ko Merkataritza Kodea indarrean sartu zenean.*

*1872an, Portuko Lanen Batzordea eratu zen, eta, modu horretan, abian jarri zen Bilboko itsasadarraren eraldaketa handia: Portugaleteko barra, itsasadarraren bideratzea eta Uribitarteko kaiak oso mugarri garrantzitsuak izan ziren eraldaketa horretan. Handik denbora gutxira, 1886ko maiatzaren 28an, Bilboko Merkataritza Ganbera eratu zen.*

KONTSULATUAREN 500 URTEURRENA
CONSULADO 500 ANIVERSARIO

# BILBAO

1511-2011



*Bilboko Kontsulatuaren armarria*
Escudo del Consulado de Bilbao

## 1. BILBOKO KONTSULATUA

*Hiribilduko eta bertako Kontsulatuko merkataritza-jarduerei dagokien margo geografiko eta instituzionalari buruzko sarrerako kapitulua.*

## EL CONSULADO DE BILBAO

Capítulo introductorio del marco geográfico e institucional en el que se desarrollan las actividades comerciales de la villa y su Consulado.




*"Brujas". Civitates liburuaren estanpa*
"Brujas" Estampa del Civitates

## 2. BILBOKO HIRIBILDUA

*Merkataritza-jarduerari dagokion marko fisikoa izanik, hiribildua bertako urbanismoaren eta eraikinen bitartez agertzen zaigu.*

## LA VILLA DE BILBAO

Marco físico en el que se desenvuelve la actividad propiamente mercantil, la villa se nos muestra a través de su urbanismo y sus edificaciones.



*Bilbao la Vieja jauregia*
Palacio de Bilbao la Vieja
(1874)



*Ventana de Orduña*
Ventana de Orduña
(s. XV-XVI)



*Modillón del edificio del Consulado.*
Modillón del edificio del Consulado
(s. XVII)



*"Bilbao Mirror" Ispilua*
Espejo "Bilbao Mirror"

## 3. OLIGARKIA KOMERTZIALA

*Hiribilduko klase dirudunek –multzo familiar handiak– euren estatus soziala mantendu edo hobetu nahi dute, eta duten maila erakusten dute, salerosketen xede diren herrialdeetatik ekarritako elementu artistikoekin apainduz euren etxeak.*

## LA OLIGARQUÍA COMERCIAL

Las clases acomodadas de la villa -grupos familiares extensos- buscan mantener o mejorar su estatus social y hacen alarde de su posición decorando sus casas con elementos artísticos procedentes de los lugares con los que comercian.



*Diego Mª de Gardoqui jaunaren erretratua*
Retrato de Diego Mª de Gardoqui
©Familia Cano de Gardoqui

## 4. MAILA SOZIALA

*Multzo familiar horien helburu nagusia nobleziaren estamentuko kide izatera heltzea da, eta hori lortzeko modua, ezkontzaz gain, odol garbia dutela erakustea da. Botere ekonomiko horrek botere politikoa ere badakar, eta, modu horretan, aipatutako taldeek postu garrantzitsuak okupatu nahi zituzten, Hiribilduko zein kanpoko esfera politikoan.*

## LA POSICIÓN SOCIAL

Pasar a formar parte del estamento nobiliar es el objetivo prioritario de estos grupos familiares y la manera de conseguirlo además de la vía del matrimonio, será la de la demostración de la limpieza de sangre. Ese poder económico conlleva también el poder político y de este modo, estos grupos buscarán ocupar conseguir puestos relevantes en la esfera política tanto dentro como fuera de la villa.

## 5. JARDUERA EKONOMIKOA

*Jarduera ekonomikoaren ardatz nagusia merkataritza da, eta, horrela, bertako produktuez gain (burdina-minerala eta burdinaz egindako tresnak), bitartekaritzako merkataritza atlantikotik ekarritako produktuak agertzen dira (oihalak eta zapiak), erresuma barruko lehengairik nagusienarekin batera: Gaztelako artileari buruz ari gara, hain zuzen ere.*



*Olagizona*
Ferrón

## LA ACTIVIDAD ECONÓMICA

La actividad económica pivota en el comercio y así, junto a los productos autóctonos como el mineral de hierro y las elaboraciones férricas aparecen los resultantes del comercio atlántico de intermediación (tejidos y paños) junto a la materia prima por excelencia del interior del reino: la lana castellana.

## 6. JARDUERA SOZIALA

*Oligarkia komertzialak presentzia eta partaidetza handia zuen gizarte-ekintzan, berdin espazio laikoetan zein elizakoetan. Horretarako, masako ikuskizunen (festak, zezenketak, jaialdiak eta abar) sustatzaileak izan nahi zuten.*

## LA ACTIVIDAD SOCIAL

La oligarquía comercial se manifestaba mediante una fuerte presencia y participación en la acción social tanto en los espacios laicos como eclesiásticos. Para ello buscaran ser los promotores en los espectáculos de masas como fiestas, corridas, festividades, etc.



*Zezenketa Kontsulatuaren plazan*
Corrida de toros en la Plaza del Consulado
*(Thomas Morony,* 1784)

## 7. BILBOKO MERKATARITZA, INDUSTRIA ETA ITSASKETA GANBERA

*Bilboko Kontsulatua 1830ean desagertu zen, 1829ko Merkataritza Kodea indarrean sartu zenean. Erakunde horren ostean etorri ziren Merkataritza Auzitegia (1868ra arte) eta Merkataritza Batzordea, 1830ean eratua. 1872an, Portuko Lanen Batzordea sortu zen, eta 1886ko maiatzaren 28an, berriz, Bilboko Merkataritza Ganbera eratu zen, Pedro Telesforo de Errazquin izanik bertako lehenengo presidentea.*



*Pedro Telesforo de Errazquin*

*Lehenengo lehendakaria*
Primer Presidente de la Cámara de Comercio
(1834-1898)

## LA CÁMARA DE COMERCIO, INDUSTRIA Y NAVEGACIÓN DE BILBAO

El Consulado de Bilbao desaparece en 1830 al entrar en vigor el Código de Comercio de 1829.
A esta institución le seguirán el Tribunal de Comercio (hasta 1868) y la Junta de Comercio constituida en 1830. En 1872 se crea la Junta de Obras del Puerto y el 28 de mayo de 1886 se constituye la Cámara de Comercio de Bilbao siendo su primer Presidente Pedro Telesforo de Errazquin.